

FITXA: 223 - GIPUZKOA - Elikadura jasangarriaren eta mugikortasun berriaren misioetara bideratutako proiektu berritzaileak Misioak 2026 programaren dirulaguntza lerroaren oinarri arautzaileak eta 2026ko deialdia.

Nori zuzendua: Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte unibertsitateek, lanbide-heziketako zentroek, elkarteek, fundazioek, enpresek, udalek, mankomunitateek, garapen-agentziek eta/edo interes ekonomikoko taldeek.

Deialdia: GAO - Gipuzkoako Aldizkari **Deialdiaren data:** 2026/04/13
Ofiziala

Sarbide-esteka:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/hasiera>

Erreferentziarako araudia: 2026ko martxoaren 17ko Erabakia -
<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/04/13/c2601914.pdf>

Eragin eremuak: Garraioa

Zenbatekoa: 700.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/04/14

Aurkezteko azken eguna: 2026/05/08
(12:00)

Aurrerakina: Ez da zehaztu

Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: Dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbatekoaren %100 izan daiteke, eta gehienez 125.000 euro proiektu bakoitzeko.

Gutxieneko zenbatekoa: 90.000 €

Tramitazioa: Norgehiagoka.

Laburpena

Dirulaguntzaren xedea da lankidetzazko logikaren arabera egindako berrikuntza-proiektuak finantzatzea. Proiektu horien helburua izango da Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako elikadura jasangarriaren eta mugikortasun berriaren misioen esparruan identifikatzen diren erronkak konpontzea.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Proiektuek honako erronka honi erantzun beharko diote:

A) Elikadura jasangarriaren misioa:

— Lurraldeko tokiko ekoizpen primarioaren potentziala maximizatzea.

B) Mugikortasun berriaren misioa:

— Garraio intermodala eta irisgarria bultzatzea.

— Mobility as a Service (MaaS); pertsonak ardatz dituzten mugikortasun-eredu berriak.

— Eredu elektriko eta iraunkorrago baterantz igarotzea.

— Mugikortasun konektatua bultzatzea.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

— Barruko langileen kostuak eta proiektua garatzeko azpikontratazioen gastuak.

— Material, hornikuntza, nahiz proiektutik zuzenean eratorritako produktu berdintsuen kostuak.

— Zeharkako gastuak, diruz lagundutako jarduerak erakunde onuradunak garatutako gainerako jardueretik duen proportzioaren arabera.

Gastuetarako aldi hautagarria

Eskaerako jarduketak 2026ko urtarrilaren 1etik 2027ko irailaren 15era bitartean gauzatu beharko dira. Justifikazio-kontu partziala 2026ko azaroaren 13a baino lehen aurkeztu beharko da, eta jarduketan gauzatze osoa egiaztatzeko azken kontua, berriz, 2027ko urriaren 15a baino lehen.